BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

8

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 7koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzen berri ematen duena.

2011ko maiatzaren 31n argitaratu zen EHAAn 2011ko maiatzaren 19ko Agindua, Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu honen 10.1 artikuluak dioenez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak hartutako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei jakinarazpen indibidualizaturik egingo ez zaienik.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kulturako sailburuaren 2011ko maiatzaren 19ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta baita horien guztien onuradunak argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 7a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ANTZOKIETAN EGOITZA-PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK

2011. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako dirulaguntza eman zaienen zerrenda.

Eskatzailea	Dirulaguntza jaso dezakeen ekintza	Diru-laguntza
Leioako udala	Gaitzerdi konpainiaren egoitza programa	7.151
Zigoitiako udala	Panta Rhei konpainiaren egoitza programa	24.849
Zornotzako kultura eta euskara zerbitzua	Markeliñe konpainiaren egoitza programa	25.000